

Torturaren biktimak existitzen dira. Eta egileak?

Nazio Batuek abenduaren 10ean Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna aldarrikatu zutenetik 51. urteurrena betetzen da aurten. Data horrek garrantzia hartu du Euskal Herrian eta Euskal Herriko Giza Eskubideen Behatokitik gogoetarako zenbait elementu eskaini nahi ditugu.

Nazioarteko egun honetan esan beharra dago aipagarriak direla torturaren biktimen eskubideen arloan eman diren aurrerapenak. ETAk indarkeria-jarduera utziko zuela iragarri zuenetik, apurka-apurka desagertu egin da inkomunikatutako atxiloketa terrorismoaren aurkako legea aplikatuz polizia-operatiboetan, eta, horrekin batera, tortura bera ere. Egiaztatzen da, beraz, tortura neurri eta politika horiekin estuki lotutako praktika bat izan zela.

Biktima horiek aitortzeko lehen urratsak Kriminologiaren Euskal Institutuak (IVACek) eman zituen, Istanbulgo Protokoloaren jardunbidearen bidez bermatutako txosten baten bidez. Txosten horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 4.311 pertsona eta Nafarroako Foru Erkidegoan 1.068 pertsona torturatu zituzten 1960 eta 2014 urte artean. Praktika horren dimentsio izugarria bere gordinen erakusten du, zalantzarik gabe, gure populazio osoa kontuan hartuta. Zenbaki horiek CATen (Committee Against Torture) arreta piztu zuten, NBEn Genevako egoitzan 2023ko uztailean Espainiako erresumari egindako azken azterketan. Batzordeak, orduan, kasu horiek ikertzeko eskatu zion Espainiako gobernari, baina gaur egun ez da zentzu horretan aurrerapausorik eman. Era berean, Giza Eskubideen Auzitegiaren jurisprudentziak ikerketa-jarduerarik eza sistematikoa ezartzen du terrorismoaren aurkako inkomunikazioa duten tortura-kasuetan. Dagoeneko 11 kasutan Europako Auzitegi Gorenak Espainia zigortu du tortura-salaketak ez ikertzeagatik, eta hori eredu sistematiko bat ezarritz. Ikerketarik ez egitea eta, askotan, Estatuari egotz dakizkiokeen giza eskubideen urraketa oso larriak legitimatzea eta goraipatzea.

Deigarria da Espainiako Estatuak gai honetan erabat geldirik egotea, oraindik gehiago aintzat hartzen badugu bera izanik perpetratzailer nagusia. EAEko eta Nafarroako erakundeek, berriz, honako lege hauek onartu dituzte azken urteotan: 12/2016 Legea, uztailearen 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 urteen artean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa, eta 16/2019 Legea, martxoaren 26koa, Eskuin Muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen ondoriozko biktimei errekonozimendua eta erreparazioa ematekoa, eta dagoeneko lehen aitorpenak ematen ari dira, 461 guztira gaur egun.

Azken 93 aitorpenak urrian egin zituen EAEko Batzordeak, eta askotariko biktimak aitortuak izan ziren: torturatuak, Guardia Zibilak edo Espainiako Polizia Nazionalek hildakoak, GALEk, Batallón Vasco Españolak edo beste talde parapolizial batzuek erailak edo larriki zaurituak. Jose Maria Larretxea Goñiren kasua izan zen horietako bat, esaterako, 1983an bahiketa saiakera bat eta lesio larriak jasan zituen. Bahiketa Jose Barrionuevo Espainiako ministro ohiak agindu zuen, El País egunkariari eskainitako elkarrizketa batean berak aitortua. Edo Gurutze Iantzi, Guardia Zibilaren komisarian hila, atxilotu eta inkomunikatu eta ordu gutxira. Azalpen ofiziala "heriotza naturala" izan zen azken kasu honetan. Beste hainbat kasuetan gertatu den bezala.

Biktimak errekonozimendua lortzen ari dira, baina ezin dugu, ordea, egia jakiteko duten eskubidea errebelatu. Biktima ez ezik, gizarte osoa babesten duen egitarako eskubide hori. Non daude

biktimagileak? Non egile materialak? Non azken arduradunak? Biktimek ez dute modurik beren egileak jazartzeko, zigorrik gabe jarraitzen baitute, sarituak edo sustatuak ez direnean.

Baina, gainera, tortura posible izateko beharrezko premisa gisa frogatu den inkomunikazio-erregimeneko atxiloketak indarrean jarraitzen du, ez baita indargabetu hura arautzen duen Espainiako Prozedura Kriminalaren Legearen 509. artikulua.

Aurrerapenak hor daude, baina beharrezkoa da estatuaren indarkeriaren biktimen aurkako krimenak justifikatu eta legitimatu zituzten kontakizun faltsuekin amaitzea, gaur egun sekretupean dauden eta argia ikusi behar duten txosten eta espedienteetan ezkutatutako bertsio ofizialekin amaitzea. Lan egin behar da aitorpenen dinamika hori geldi gera ez dadin eta eguneratua eta egokitua izan dadin, eta, Balorazio Batzordeak berak eskatu bezala, aitorpenak eskatzeko epe berri bat ireki behar da, 1999. urtetik aurrera gertatutako indarkeria-kasuak barne.

Giza Eskubideen Behatokia "gizarte-fiskaltza" gisa sortu zen, biktima guztiek egia, erreparazioa eta justizia izateko duten eskubidearen premisatik Estatuko biktimei laguntzeko.

Iratxe Urizar

Agus Hernan

GEBehatokia- Euskal Herriko Giza eskubideen Behatokia